

# KOSTAKO TRUMOYAREN BERTSUAK

---

JUAN JOSE  
SARASOLAK  
JARRIAK

---

**1**

Emeretzireun eta amalau  
urte ziranian juanta,  
Ogei gisaldi konpletatzeko  
larogei eta sei falta,  
Jesús jayo zan ezkerozkuak  
asko dira lurak jota  
bizi geranak sentitzen degu  
pertzekusiyo galanta.

**2**

Itsasotikan trumoyak eta  
mendi gañeko lañubak,  
alkar jotzian asarretuta  
egin dizkigun dañuak,  
belarri danak gortutzeraño  
txori gastuen doñuak,  
mundu guztiya ikaratzten du  
ekusten eztan soñuak.

**3**

Aize guztiyak borrokatuta  
ondoreneko ekaitza,  
kaskabarrezko laño mordua  
dirudiyela arkaitza,  
botatzen duben amenazua  
samiña eta zikoitza,  
ankaz aurrera eramaten du  
deskuidatzen dan bakoitza.

**4**

Trumoi adar bat nabarbendu da  
bendabaletik nortera,  
bizi diranak gogoratzeko  
larogei eta sei urtera,  
beti gañian nai gendukenak  
lenago guaz lurpera,  
semejantza bat tristiagorik  
ez dator gure artera.

**5**

Destierroko balle tristera  
zertara geran bialtzen,  
juiziyuaren antza degunak  
ez aldakigu igartzen,  
seme alabak nola gabiltza  
arpegi illuna jartzen,  
onbestarikan egin gabeko  
aitaren biziya galtzen.

**6**

Iñork ekusten ez duena da  
goitik datorren erdera,  
lur ikara ta kanpo guziya,  
izutzen duen dardara,  
mundu ontako artzayak baño  
zintzuagua or bada,  
ardi galduak biltzen dijua  
bakoitzak bere bordara.

**7**

Trumoi soñuak baño lenago  
aurretik tximista argiña,  
kontu artzalle ona degula  
au da señaile garbiya,  
biyak batian abiyatuta  
lendabiziko guardiya,  
zertaraño dan erakustera  
bere miserikordiya.

**8**

Estranjeroko lur trikaratan  
begira zer da pasatu,  
ondo zeudenak galdu zituen,  
lotan zeudenak esnatu,  
kastigo ori zertarako dan  
guk nola ondo juzgatu,  
abillaguak arritzen dira  
ezin dutela asmatu.

**9**


Pentsatzen gaude xinistaturik  
ayetan zenbat kalte den,  
gurutziaren siñali ori  
gauza biarra ote den  
derrepenteko argitasuna  
jakiñik nola maite den,  
estadu txarrik ekusi gake  
egin dezagun aitaren.

**10**

Ixildu gabe dabillen orrek  
badaukat nundik etena,  
protestante ta juduak ere  
errespetatzen dutena,  
zeñek beria goguan artu  
askok esan diratena,  
ez algenduke fiyatu biar  
guziyok jabe batena?

**11**

Gure odola sosegatzen da  
denboraliak ontzera,  
uda partian lasai oituak  
neguan gatoz trantzera,  
gauza guziyak zure eskutik  
dabilkizuna nuntzera,  
ipar garbiya bialdu zazu  
oreya beltzak kentzera.



**12**

Kojuruaren kontra badira  
zenbait tentaziyo klase,  
egarri txarra sartu zitzaigun  
oraindik ez gera ase,  
goibel triste au klaratu arte  
egunak dijuaz luze,  
Santa Barbara ora pro nobis  
Jesus, Maria eta Jose

Bertso hauek 1932an argitaratu  
ziran BERTSOLARIYA aldizkarian

## ERITZI ARTIKULOAK

\* Oporraldia dela eta badirudi Lezon ez dagoela arazorik. "Hala bedi" Bego horrela urte luzez.

\* *Al parecer, como estamos en época de vacaciones, no hay problemas en Lezo. "Que sigamos así mucho tiempo".*

## OHARRA

Eritzi artikuloetan argitaratu behar duen idazlan orok idazlearen izen-abizenak eta N.A.N. zenbakia igorri beharko dizkigu.

*Todo aquel que quiera ver publicado su artículo de opinión deberá facilitarnos nombre y apellidos junto con el número de D.N.I.*